



« Lekukoa, le relais paysan », tokian tokiko janaria eskuratzeko

Azken egun hauetan, kontsumitzaileen ekimenak biderkatzen ari dira lekuko elikagai-hornidura sustengatzeko. Hari beretik, Ipar Euskal Herriko **laborantza herrikoia**ren alde lan egiten duten **egiturek**, Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkartea (APFPB), Biharko Lurraren Elkartea Civam (BLE), Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) eta ELB sindikatek, **laborariak berek sortu eta kudeatu tresna berri bat plantan ezartzen dute : “Lekukoa, le relais paysan”**, herritar eta laborarien artean lotura egiten duen tresna.

Tresna hau, egoera desberdin horien ondorioz martxan ezarri dugu :

- ostatu eta ikastetxeekin lan egiten duten ekoizle ainitzek salbide nagusi bat galdu dute koronabirusaren epidemiaren kontrako neurriak ezarriak direnetik.
- merkatuetan jende gutiago ibiltzen da eta azken egunetan, merkatuak debekatzeko joera agertu da
- herritarren aldetik, lekuko ekoizpenekiko interesa handituz doa (gero eta jende gehiago gure ekoizle-saltokietan !),
- ekoizle eta kontsumitzaileak kutsatze irriskuetatik babesteko beharra, segurtasun-neurri zorrotzak hartuz.

Hara zendako, « Lekukoa, le relais paysan » tresna abiatu dugun. Webgune honetan (www.lekukoa.com), jaleek ikusten ahalko dute nun hornitzen ahalko diren lekuko eta kalitatezko mozkinak. Joan-jinen egiteko eta jakiak eskuratzeko zailtasunak hor izanik, LEKUKOAK, **egungo egoerari aterabide konkretuak proposatzen ditu**. Denbora berean, herritarren eta laborarien arteko **loturak epe luzerat indartu nahi ditu**, lekuko produktuez elikatzea erretuz.

“Lekukoa, le relais paysan”, Ipar Euskal Herriko laborantza herrikoia sustengatzen duten egiturek kolektiboki bultzatu duten plataforma bakarra da. Gure etxaldeen zuzenean jin lekuko eta kalitatezko ekoizten anitz eskaintzen ditu. Webgune hori, tresna berri bat da tokiko eta kalitatezko laborantza sustatzeko eta elikaduraren bertokiratzeko. Helburu horiek beste ekitaldi batzuekin ere lantzen ditugu urte guziz : Lurrama, Idoki merkatuak, Asunak, Laborarien Xokoa-le Comptoir paysan...

Helduden astetik goiti, Lekukoa Drive !

Helduden astetik goiti, asteroko banaketa sistema bat abiatzen dugu, iparraldeko ehun bat etxaldeen ekoizpenekin, hogoi bat herritarat helduz, hastetik bururaino sekuritateko neurriak zainduz.

- www.lekukoa.com web gunean astero atxemanen dira banaketa punduetarat heltzen ahal diren etxalde eta ekoizpenak (jadanik 80 batek izena emana du) ;
- bezeroek manatzen dute nahi duten laborariari eta hari zuzenki pagatzen dute (biramenduz edo xekez bainan ez diruz banaketa egunean) ;

- banaketa gunean, autoak aintzintzen dira lerroan, laborariek ekoizpenak ezartzen dituzte zuzenki autoko kofrean eta bezeroa ez da autotik jausten (oinezkakoak heltzen ahal badira banaketa gunerat, antolaketa berezia jarria izanen da ekoizpenak hartzeko kontakturik gabe) ;

- babes neurriak hartuak dira hastetik bururaino.

Herrietako zerbitzu teknikoek antolaketa teknikoa errexten dute (herriko etxeek baimendua dute gure sistema).

lekukoa.com martxan izanen da bihartik goiti. Prentsak gunea ikusten ahal du oraitik bainan banaketa guneen baimentzea eta ekoizleen zerrenda ez da arrunt finitua. Bihar eguerditik goiti hasten ahalko dira manaketak.

Egun zombait beharko dira sistema arrunt untsa martxan arizan baino lehen. Manaketen arabera, banatzeak helduden astetik goiti hasi nahi ginituzte.

Les lieux de livraison de *Lekukoa Drive* :

| EGUNA | HERRIA | HORAIRE (konfirmatzeko a) | BANAKETA GUNEA |
|------------|---------------------------|---------------------------------|-------------------------------------|
| Astelehena | Donibane Garazi | 10h30-11h30 | Parking Jai Alai |
| | Atharratze | 12h-13h | Merkatu estalia |
| Asteartea | Miarritze | 13h30-14h30 | Parking Halle Iraty |
| | Donibane Lohitzune | Herriko etxearekin negoziaketan | |
| Asteazkena | Ezpeleta | 10h-11h | Merkatu estaliaren peko aparkalekua |
| | Hendaia | Herriko etxearekin negoziaketan | |
| Osteguna | Baiona | 11h-12h | Euskaldunen plaza |
| | Angelu | Herriko etxearekin negoziaketan | |
| Ostirala | Aiziritze | 12h-13h | Praking salle pour tous |
| | Larزابale | 10h30-11h30 | Parking Ikastola |
| | Kanbo | 10h30-11h30 | Parking collège Errobi |
| | Donibane Lohitzune | Herriko etxearekin negoziaketan | |
| Larunbata | Baiona | 11h-12h | Euskaldunen plaza |
| | Angelu | Herriko etxearekin negoziaketan | |
| | Miarritze | 13h30-14h30 | Parking Halle Iraty |
| | Bidarte | | Parking Uhabia |
| | Hendaia | Herriko etxearekin negoziaketan | |
| | Azkaine | | Kiroleta |
| | Uztaritze | 12h-13h | Hiribehereko plazako aparkalekua |
| | Maule | 13h-14h | Plaza nagusia |
| | Hazparne | 13h-14h | Ezker paretako aparkalekua |

Hornitzeko beste gunek

Lekukoa.com webgunean Ipar Euskal Herriko bio edo etxe ekoizleen hamar dendak aipatzen dira.

Asteko merkatuetan ere atxeman daitezke gure etxaldeetako ekoizpenak. Egungo egoeran, horietako ainitz ezeztatuak izan dira. **Guk merkatu horiek atxiki behar direla diogu,** epidemiaren kontrako osasun-prebentziorako jestuak errespetatuz. Izan ere, *Lekukoa Drive* aterabide alternatibo bat da, baina ez du asteko merkatua ordezkatzeko, ez baitu publiko guzietan erantzuten. Denek ez dute internet baliatzen, banku biramenduz pagatzen edo aintzinetik manatzeko usaiarik. Biziki garrantzitsua da ere ekoizle tipientzat asteko merkatua zabalik atxikitzea.

Krisialdi hontarik landa, biztanleek lekuko mozkinekin hartu usaia onak irautea nahi ginuke. Mozkin horiek ostatu edo kantinetan ere baliatzen dira eta agian berriz fite atxemaiten ahalko dira!

Harremanetarako :

ipar Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkarte, **Patrick SALLABERRY, 06 58 94 29 65**

Biharko Lurraren Elkarte, **Francis LARREA, 06 87 39 55 51**

ELB sindikata, **Panpi SAINTE-MARIE, 06 08 04 74 16**